

GEZURRA

CARE SANTOS



EDEBÉ GAZTE
LITERATURA
SARIA



giltza

periskopioa

GEZURRA

CARE SANTOS

GEZURRA

EDEBÉ
GAZTE LITERATURA
SARIA



Lan honek Edebé Gazte Literatura Saria irabazi zuen, kide hauek osatutako epaimahaiak hala erabakita: Xavier Brines jauna, Victoria Fernández andrea, Anna Gasol andrea, Rosa Navarro Durán andrea eta Robert Saladrigas jauna.

Jatorrizkoaren izena: *Mentira*

© Care Santos, 2015

www.caresantos.com

© Itzulpena: Miren Agur Meabe

© Arg. Eusk.: Giltza, 2021

Askatasun etorb., 69

48901 Barakaldo (Bizkaia)

www.edebe.com

Bezeroen arreta: 902 44 44 41

kontaktatu@edebe.net

Argitalpenen zuzendaria: Reina Duarte

Gazte Literaturako editorea: Elena Valencia

Bildumaren diseinua: Book & Look

Azaleko argazkia: Shutterstock

Egilearen argazkia: Joan Cortadellas Huguet

1. argitalpena, 2021eko iraila

ISBN: 978-84-8378-572-0

Lege-gordailua: 1174-2021

Espanian inprimatua

Printed in Spain

EGS – Rosario, 2 – Bartzelona

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespeneko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos) (www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 45).

—Bizitza joko duk izan, gazte. Bizitza joko duk, araei jarraituz jokatu beharreko joko.

—Bai, jauna. Badakit hala dena.

Zekale artean harrapaka,

J. D. Salinger

*E*statistiken arabera, 12 hilabetean 18.000 baino gehiago izan ziren adingabeek egingako delituak. Ohikoenak, lapurretak: autoak, dirua, aparatu elektronikoak (eskuko telefonoak, batez ere). Orotariko tokietan: autoetan, supermerkatuetan, kalean, etxeetan... Guztira, 9.782 lapurreta.

Lapur gazteen artean, 17 urtekoak dira ohikoenak. 17 urte adin gatazkatsua da, nonbait. Beharbada, jendea aspertu egiten da 16 eta 18 urte bitartean. Kontua da urte bakar batean poliziak 17 urteko 3.000 lapur baino gehiago atxilotu zituela. 14 urteko lapurrak, ordea, erdia baino ez: 1.505.

Lapurreten atzetik, estatistikek lesio delituak aipatzen dituzte: 2.416 adingabek kartzela ikusi zuten arrazoi horrengatik. «Lesioak» esaten da tipo batekin borrokan egin, ostikada jo eta benetan min ematen diozunean. Gero bortxaketak datoz: 267. Tira, legeak honela deitzen die: «sexu-askatasunaren eta -identitatearen aurkako delituak».

Eta horrelaxe iristen gara zerrendaren go-renera. Hemen hilketak dauzkagu. «Giza hilketak eta horren formak», dio legeak. Guztira: 44 kondena. Kuadrilla txikia, labur esanda. 44 horietatik, 43 mutilak dira. Urte horretako neska hiltzaile bakarrak 16 urte zituen. Berriz irabazten dute 17 urtekoek, puntu askoren aldearekin. 20 dira. Badira 16 urteko hiltzaileak ere, baina askoz gutxiago; datu ofizialen arabera, 13. Hala eta guztiz ere, zaila da imajinatzea, ezta? Tarotean, 13 zenbakia duen karta Heriotza da. Bai xelebrea. Baditugu, halaber, 15 urteko zortzi hiltzaile eta 14 urteko hiru. 14 urteko hiru hiltzaile besterik ez. Hiru oso gutxi dira.

Adingabeen epaileek ez dute ezertxo ere entzun nahi 14 urtetik beherakoei buruz. 14 urte bete aurretik umemokoa zara, errugabea, «egotzezina». Zera esan nahi du horrek, egiten duzuna egiten duzula, ez daukazula errurik. Munduaren nondik norakoak oraindik ezagutzen ez dituen norbait zara. Bizitzaren zapora garratza oraindik dastatu ez duen norbait. Pribilegiatu bat. Ez zara existitzen.

Gera gaitezen honekin: 14 urteko hiru hiltzaile. Bakanen arteko hiru bakan. Edozein

adituk esango luke: hilketa ezohiko delitua da gazte kriminalen artean, larriegia da, ahalegin handia eskatzen du, jendea ez da hiltzen besterik gabe. Nahiz eta noizean behin bai gertatu. Dena gertatzen da lehenago edo geroago. Zorro-arraza gara. Gutako edonor edozertarako kapaz da, egoera fortunatuz gero. Gizartean beharrezkoak dira fruta-ale debekatuak, beste aleek, ale on osasuntsuek baztertzeke, haiengandik urruntzeke, kutsatzen ez uzteke. Hartu arnasa lasai. 14 urteko hiltzaileak ez dira ohikoak.

Salbuespena naiz. Bitxikeria bat estatistike-tan.

Batzuetan neure buruari galdetzen diot zer egin ote zuten beste biek.

I

SALINGER

1

Nire gurasoak txaplata hutsak dira. Gaue-
ro, afalostean, oso gai korapilatsuei bu-
ruzko denetariko eztabaidetan endredatzen di-
ra: bankuak, krisia, Estatu Batuak, munduaren
segurtasuna, delinkuentzia, pobrezia... Telebis-
tako debateak ekartzen dizkirate gogora, zera
baino luzeagoak eta eltzagor-kontzertu bat bai-
no aspergarriagoak. Ez dut ulertzen, benetan.
Bien artean ez dute ezergatik eztabaidatzen,
baina kapaz dira orduak botatzeko kontu horiei
buruz hizketan. Berezitxoak izan behar.

Azken eztabaida ez zen aspaldi izan. Albis-
tegiko irudi batzuetan mutil ilehori altu bat
agertzen zen beste mutil gaixo bati aurpegian
ukabilka, biak metroan zeudela. Eraso arrazista
bat, inolako arrazoirik gabekoa, esan zutenez.

Biktima ekialdetarra zen, Mongolian jaioa. Poliziak erasotzailea atxilotu zuen, eta epaileak adingabeen zentro batera bidali. Irudietan ez zitzaion aurpegia ikusten belo garden moduko batek estaltzen ziolako. «Horrela egiten da legeak delitugileak babesten dituelako adingabeak diren bitartean», azaldu zidan amak. Aitak gaitzespen-keinua egin zuen. Ez dago ados gauzak horrela izatearekin. Amak pentsatzen du adingabeek merezi dutela beste aukera bat, 17 urte dituzunean ez dagoela ezer konponezinik. Aitak galdetu zion ea zer bandotan zegoen, gaizkileak defendatzen zituenez gero.

—Mutil gaixo horretaz ez da inoiz sekula inor arduratu, seguru. Arduratu izan balira, jakingo luke bereizten zer egin daitekeen eta zer ez, eta ez luke horrela jokatu —esan zuen amak.

—Bai zera! 17 urteko batek oso ondo daki zer dagoen ondo eta zer ez, baita zertan dabilen ere. Eta jipoia hartu duen errukarria nork defendatuko du, e? —bota zuen aitak.

—Mundu guztiak, garbi dago —esan zuen amak—. Biktima mundu guztiak defendatzen du beti. Gure gizartean beti ateratzen da irabazle biktimarena egiten dakiena.

Txor-txor-txor. Beti bezala. Tabarratzarra.

Amarentzat «nitaz arduratzeak» —alaba bakarra naiz— gauza desatsegin mordoa esan nahi du: nik nahi dudan arroparekin eskolara joaten ez uztea; mila galdera eginez zoratzeari kalera noan bakoitzean; gaueko hamarretan telefonoa kentzea kargatzen ipini behar duela eta; ohetik konektatzen inoiz ez uztea (ezta asteburuetan ere!) edo —are okerrago— ordenagailua logelan edukitzen ez uztea. Bai, bai, horixe da okerrena: eskolako lanak sukaldean egin behar izatea, zergatik eta berak «zer egiten dudan kontrolatu» nahi duelako Internetera konektatzen naizenean; eta jasan behar izatea ama aldian-aldian nire atzean jarri eta sorbalda gaintetik pantailari begira egotea, ea berari gustatzen ez zaion zerbait egiten ari ote naizen. Oso urduri jartzen nau!

—Zer nahi duzu egitea institutuan jartzen diguten lan pilarekin? —galdetzen diot, ea konturatzen den—. Gainera, handia naiz, ama; primeran dakit zein diren Interneten arriskuak.

Baina ezer ez, nire ama ez da erraz konbentzitzekoa. Nitaz fidatuko ez balitz bezala. Ez dit

uzten Internetik edukitzen ezta telefonoan ere! Sinestezina! Aitak hortzak estututa eta arrazoia emanez bezala begiratzen dit, baina berak ere ez daki zer egin ama konbentzitzeko. Ez dakigu, ez berak eta ez nik.

Behin batean, aitak esan zidan:

—Kontua ez da ama ez dela zutaz fidatzen, Xenia. Kontua da Interneten badirela zuk orain ulertzen ez dituzun arriskuak, beldurra ematen digutenak. Bioi.

—Primeran dakit zer arrisku dagoen Interneten. Ez naiz neska koskorra.

Aitak buruari eragin zion.

—Hemendik urte batzuetara ulertuko duzue gure jokamoldea —gehitu zuen.

—Uste dut sekula ez dudala ulertuko —esan nuen marmarka, eta aitak barre egin zuen.

Aitarekin erraza da barre egitea. Horixe dut gustukoena beragan. Zernahiri buruz hitz egin ahal diot, inoiz ez delako urduritzen eta inoiz ez nauelako tratatzen hamar urte banitu bezala. Ez zait axola aitari isilpekoak esatea. Gau hartan, adibidez, ia-ia kontatu nion Marcelorena. Irrikan nengoen esateko bat-batean dena ari zela aldatzen eta nola sentitzen nintzen. Zoriontsu,

arraro, ezberdin. Ez neukan beste pentsamen-
durik buruan azken egunetan.

Esan izan banio, seguru ez zidala botako gu-
rasoek botatzen dituzten erretolikatxo tipiko
horietako bat. Baina amari kontatuko zion eta
hori bai bihurtuko zen arazo. Aitak eta amak
beti kontaktzen diote den-dena elkarri.

Zorionez, garaiz isildu nintzen.

Zorionez?